

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Hasierako onarpena ematea zerga ordenantzen aldaketari

Udal honek hau erabaki zuen 2016ko urriaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran:

Lehenengoa. Hasierako onarpena ematea ordenantza hauen aldaketari:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
2. Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza.
4. Zerga ordenantza, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Etxeak edateko urrez hornitzeagatik eta estolderia zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza.
8. Zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza.
 - * 8.1. epigrafea: zaborra biltzeko zerbitzuagatik tasa.
 - * 8.2. epigrafea: udal kiroldegiko harpidedunek ordaindu beharreko tasa eta haien sarrerak eta alokairuak.
 - * 8.4. epigrafea: kultura jardueren zerbitzuaren tasa.
 - * 8.5. epigrafea: udal langile eta materialak erabilia emandako zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa.
 - * 8.6. epigrafea: agiriak emateagatik kobratu beharreko tasa.
 - * 8.7. epigrafea: hirigintzako lizentzien tasa.
 - * 8.8. epigrafea: udal hilerriaren aprobetxamenduarengatik ordaindu beharreko tasa.
10. Udal jabari publikoaren erabilera pribatuaren edo aprobetxamendu bereziaren tasak arautzen dituen ordenantza:
 - * 10.2. epigrafea: erabilera publikoko lurretan laginketak edo lubakiak irekitzeagatik eta bide publikoetako zoladura eta espaloiak iraultzeagatik ordaindu beharreko tasa.
 - * 10.4. epigrafea: Erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizunak edo atrakzioak jartzeagatik edo kale industriengatik, salmenta ibiltariagatik edo filmaketa zinematografikoak egiteagatik ordaindu beharreko tasak.
 - * 10.5. epigrafea: bide publikotik ikus daitezkeen pintadak, pankartak, errotuluak, propaganda eta iragarkiak jartzeagatik tasa.
11. Auzokoek baso gaiak sutarako aprobetxatzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.
18. Aguraingo Udalaren "Sotos eta Vargas" mendiko (onura publikoko 610 mendia) eta "Udala" mendiko (onura publikoko 611 mendia) abeltzaintza aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza

21. Udalaren materiala mailegatzea eta lokalen erabilera lagatzea arautzen duen ordenantza.

25. Ostalaritza eta antzeko establezimenduetako titularrek terrazak, mahai hankabakarren multzoak eta instalazio osagarriak instalatzeko egiten duten erabilera publikoko zoruaren okupazioa arautzen duen ordenantza.

26. Aguraingo Udalaren ordenantza, sasoiko langileentzako instalazioak erabiltzea arautzen duena.

Beraz, bat etorritz uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan ezarritakoarekin, argitaratu eta jendaurrean jartzen da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta, hala balegokio, egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko; erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko onartutzat joko da.

Agurain, 2016ko urriaren 28a

Alkatea

IÑAKI BERAZA ZUFIAUR